



2018 Korpus

www.caritasvitoria.org



Cáritas
Diocesana de Vitoria
Gasteizko Elizbarrutia

CARITASEN KANPAINA INSTITUZIONALA

Gidoi liturgikoa

Gorpuzti-eguna (2018ko ekainaren 3a)

Sarrera

Ongi etorri Gorpuzti-festa ospatzera!

Jai honek eta bere ospakizunak, Kristoren Gorputzean eta Odolean gure fedea adieraztera gonbidatzen gaituzte. Bestetik, Euskaristian gure itxaropena berritzera eta gure anai-arreba behartsuekiko gure karitatea handitzera ere bai.

Gaur Elizbarrutiko Caritaseko kide garela berrizten dugu, eta gure babesa eta lankidetzeta adierazten diogu. Anai-arreben arteko karitatea behar-beharrezkoa da Eukaristian, horregatik, Jesusen Gorputz eta Odolak, giza egoera latzen aurkako borrokan parte hartzera bultzatzen laguntzen digute.

Penitentzia-unea

Eukaristia bakoitzean, Jainkoarekin eta gure artean biltzeko momentua da. Hau dela eta, ezin dira barkamena eta elkarrekiko adiskidetzeta uneak falta. Horregatik, denok batera eskatzen diogu Jainkoari gure arteko barkamena zintzoa izan dadin:

Jauna, min egitea sendatzea baino nahiago dugun aldiengatik. **ERRUKI, JAUNA.**

Kristo, behartsuengan zu ikusteari eta harrera ona emateari uko egiten diogun aldiengatik. **KRISTO, ERRUKI.**

Jauna, Zuk egunero gurekin egiten duzun legez, elkar maitatzea eta baloratzea lortzen ez dugun aldiengatik. **ERRUKI, JAUNA.**

Irakurketa-unea

1. Irakurketa. Ex 24, 3-8: Hebrear herriak Aliantza bat egiteko Yahveren esana eta erabakia onartu zuen. Garai hartan, animalien odolak itunak edo hitzarmenak sinatzeko balio zuen, eta orain,

Jainkoarekin Aliantza. Horrela, ikusgai bihurtzen zen alderdi biek erabakitakoa beteko zutela.

2. Irakurketa. Hb 9, 11-15: Kristoren odola, gurutzean bere borondatez isuritakoa, Aliantza Berriaren ezaugarria da orain. Jesus, hila eta berpiztua, Aliantza honen bitartekaria eta bermatzailea da, horregatik “agindutako betiko ondarearen promesa Jainkoak deitutakoek jaso dezakete”.

3. Irakurketa. Mc 14, 12-16, 22-26: Azken afarian, Jesusek Eukaristia sortu zuen. Bera da ogian eta ardoan presente egiten dena, bere Gorputz eta odol modura. Aurrez, egun hartan apostoluek legez, geu gara eukaristia prestatu eta geure burua era egokian prestatu behar dugunok.

Eliztarren otoitz-unea

Jainkoaren Hitzak suspertuta, onartuak eta entzun izanaren konfiantzaz Aitarengana zuzenduko gara.

Elizaren eta gaur Gorputzi-festa ospatzen dugun komunitateen alde; Jesusek Eukaristian bezala, “zatitu eta banatzea” praktikan jar dezagula. Eskatzen dizugu, Jauna.

Euren bizitzan hurrengo egoera lazarriak jasaten ditzuztenen alde: gerra edo indarkeria, jazarpena edo erasoaldia, gehiegikeria edo bazterkeria, babesik edo laguntza-eza, esaterako; guztiak jaso dezaten laguntasuna ahalik eta azkarren, behar den tratu duina emanaz. Eskatzen dizugu, Jauna.

Jaunak gure eguneroko ekintzak bedeinka eta babes ditzan, eta bere laguntzari esker anaitasunez eta esperantzaz bete ahal ditzagun. Eskatzen dizugu, Jauna.

Egia, justizia eta karitatea gure kristau identitatearen ezaugarriak Ebanjelioaren indarrean oinarrituak eta neurtuak izan daitezten. Eskatzen dizugu, Jauna.

Elizbarrutiko Caritasek pertsona behartsuenen aldeko ekintzak eta programak garatzen eta hobetzen jarrai dezan, eta ez diezaiola inoiz gure lankidetzak falta. Eskatzen dizugu, Jauna.

Har itzazu, Aita, eskaera hauek. Jesusek erakutsi digun bidearen misioa betetzeko, beti behar izaten baitugu zure laguntza.



2018 Korpus

www.caritasvitoria.org



Cáritas
Diocesana de Vitoria
Gasteizko Elizbarrutia

Jesukristo gure Jaunaren izenean.

Agurra

Elizbarrutiko Caritas, Ebanjelioan oinarritutako pertsonen eta kristau komunitatez, boluntarioez zein laguntzailez, bazkideez zein diru-emaez osaturiko kolektibo harmoniko eta antolatua da.

Guztion lankidetzaz mundu berri bat irudikatzea eta eraikitzea ahal da, non bakea, justizia eta anaitasuna denontzat zoriontasun-ondare eta arrazoia izango diren.

Eskerrik asko!